

**EGIN KIROLA
HAVE FUN!**

KIROLEAN HASTEAN

2018

2019

ESKOLA KIROLA

 **Bizkaia**
goazen



KIROLEAN HASTEAK

4_ HEZIKI 8_ KIROL ANITZA 14_ UDAL MAILAKO KIROL ANITZA

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduera proposatzen ditu eskola-umeei kirolaren munduan hasteko aukera emateko, bai benjaminaurneko kategorian (HEZIKI), bai benjamin kategorian (KIROL ANITZA eta UDAL MAILAKO KIROL ANITZA); horretarako, hau eskaintzen zaie:

- Baliabideak lortzea, hala nola mugimendurako, adierazpenerako eta sormenerako, baliabideak oso baliagarriak izango baitzaizkie eguneroko bizitzarako nahiz kirolerako, dela aisialdiko edo mantentzeko kirolerako, dela lehiaketa mailako kirolerako.
- Kirol batean baino gehiagotan hasteko aukera, eta, horrela, ume bakoitzak bere aukera eta/edo interesei ondoen egokien zaiena aukeratu ahal izango du.
- Etorikizunean, bizitza osoan zehar, pertsona heldua denean, bizitzako aro horretako interesiei eta aukerei ondoen egokitzen zaien kirol mota aukeratu ahal izatea.

Programa honetan beste ezaugarri berezi batzuk ere nabarmendu behar dira: batetik, jarduera guztietan parte-hartzeari ematen zaiola garrantzia gehien, bestelako kirol jardueretan hain inportantea izan ohi den alderdi agonistiko edo lehiakorren aurretik; bestetik, jarduera guztiak neska-mutilentzat direla, eta, azkenik, jarduerok naturarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen dutela.



KIROLEAN HASTEAK HEZIKI

HEZIKI Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako eskola-umeentzat bereziki diseinatutako jarduerak da. Jarduera honen bitartez, umeek trebetasun motornak garatzea sustatu nahi da, haien ekintzen kudeaketa autonomia ahalbidetzeko, eta, hala, etorkizunean egin nahi dituzten kirolak ikasteko prozesuan proposatzen zaien edozein ekintza motor egiteko gai izan daitezela, lortu beharreko gaitasun-maila edozein dela ere (parte-hartzea eta/edo errendimendua). Hori guztia, egin beharreko ekintzak gustura egitea ahalbidetzen duen giro batean, kirola eta jarduerak Fisikoa egiteko zaletasuna sustatzeko.

IZEN-EMATEA NORK?

ERAKUNDEAK

Izen emateko izapideak egin ahal dira Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketak ofizialak ematen dituzten ikastetxeen bidez, horietako guraso elkarten edo horiei atxikitako kirol erakundeen bidez, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen, haien udal erakunde autonomoen edo kirolen udal Fundazio publikoen bidez.

PARTE-HARTZAILEAK

Modalitate indibiduala denez ez dago gehieneko kopurunik. Denboraldian zehar zenbat gura aldaketa egin ahal izango da taldeen osakeran.

KIROLA: HEZIKI						
PARTAIDEEN KOPURUA			KIROL MODALITATEA		ERAKUNDE PARTAIDEA	
GUTXIE-NEZ	PROPOSATUTAKO GEHIENAKO (DIRUZ LAGUN DAITEKEENA)	GEHIE-NEZ	BANAKA	TALDEKA	IKASTEXEA	UDALA
6			B/I		I/C	U/A



ENTRENATZAILEAK

Hezikiko entrenatzaileek honako kirol titulazio hau aurkeztu behar dute gutxienez:

KIROL TITULAZIOA	TITULAZIO AKADEMIKOA
ENTRENATZAILE NAZIONALA III. MAILA	Gorputz Hezkuntza liz.- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan liz Goi Kirol Teknikaria
HERRIALDEKO ENTRENATZAILEA II. MAILA	HFko irakaslea Gorputz eta kirol-ekintzen animazioko goi mailako zikloa Kirol Tekniaria
I. MAILA	Irakasle-ikasketak Natur ingurunean kirol jarduera Fisikoak bideratzeko erdi mailako zikloa
BEGIRALEA I. MAILAKO BLOKE OROKORRA	
ESKOLA KIROLEKO BEGIRALEA	



NOLA? Izena eman nahi duten erakunde guztiek «Erakundeek izena emateko orria» (VI. eranskina-EK 6) izeneko inprimakia bete beharko dute. Eskabideak www.bizkaia.eus/eskolakirola webaren bidez aurkeztuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean kirolez arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen unriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira. Kirol etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Pikaza kalea, 27 Bilbo-48003).

Taldeen zein parte hartzaileen izena emateko, www.bizkaia.eus/eskolakirola, webgunea erabil daiteke, edo bestela Kirol etxean aurkeztu (Martin Barua Pikaza kalea, 27 Bilbo-48003), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen unriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

Izena eman nahi duenak baliabide inFormatikorik ez badu, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) erabilgarri dauden ordenagailuak erabili ahal izango ditu horretarako.

Izen-ematea behar bezala egin behar da **balioduntzat jotzeko** (gutxieneko kirolari kopurua, kirol arduraduna, helbide elektronikoak...).

Era berean, erakundeak lehenengoz ematen badu izena Bizkaiko Eskola Kirola programan erakundearen IFKren kopia aurkeztu behar du.

Izena ematerakoan kirolari guztien argazki digitala aurkeztu behar da.



EPEAK Izena emateko epeak honako taula honetan ezarritakoak dira:

IZENA EMATEKO EPEA		
KIROL JARDUERA	HASIERA	AMAIERA
HEZIKI	IRAILAREN 3tik	URRIAREN 29ra

MATERIALA Lehen aldiz izena ematen duten erakunde guztiei material hau emango zaie, doan:

- Bi urterako programa metodologikoa.
- Heziki atea (eskubaloiko/areto-Futboleko atea egokitzeko elementua).
- Heziki baloiak (Foam).

KIROLEAN HASTEKO jarduera bat denez, ikasturtean zehar hiru kontzentrazio egingo dira (hiruhileko bakoitzean bat). Kontzentrazio horietan, kirolariak erakutsiko zaie zer den lehiaketako jardunaldi bat benjamin kategoriatik gora. Denboraldian zehar jakinaraziko da noiz eta non antolatuko den HEZIKIKETA bakoitza.

ARGIBIDE GEHIAGO:
WWW.BIZKAIA.EUS/ESKOLAKIROLA



KIROLEAN HASTEA

KIROL ANITZA

Hezikiren bi ikasturteak amaitu ondoren, KIROL ANITZEKO lehiaketa-jardueran inskribatzea gomendatzen da, jarduera horretan hainbat kiroleetan hasteko aukera izango baitute kirolariek, beren ezaugarri eta/edo interesetara gehien egokitzen dena aukeratu ahal izateko.

ARAUDI OROKORRA

1. TALDEEN OSAERA

1.1 Talde bakoitzak gutxienez 8 jokalaria eta gehienez 15 izango ditu. Taldeak mutilenak, neskenak edo mixtoak izan daitezke. Jolasketa bakoitzean talde guztiek hartuko dute parte. Taldeko kide bakoitza gutxienez behin arituko da kirol modalitate guztietan.

2. TALDEEN IZEN-EMATEA

2.1 Ikastetxeak izena eman eta gero, Jarduera hauetan parte hartu nahi duten talde guztiek interneten bidez (www.bizkaia.eus/eskolakinola) egin beharko dute inskripzioa **2018ko irailaren 3tik urriaren 1era**.

3. JARDUERAREN GARAPENA

3.1 Egutegiaren bitartez antolatuko dira kirol modalitate ezberdinak, euren artean zenbait Sustapen Ekitaldi jarriz.

3.2 Liga gisa garatu daitezzen jardueretarako programatutako eguna (larunbata), ikastetxe biak ados jartzen badina eta Kirol Zerbitzu honek bere adostasuna ematen badu aldatu egin ahal izango da.

3.3 Etxeko Jolasketen aktak Eskola Kiroleko bulego nagusira (Martín Barua Picaza kalea, 27. 48003 Bilbao) eraman beharko dira, hurrengo jardunaldia baino lehen. Posta elektronikoz edo Fax-ez (94.441.81.65) bidal daiteke.

3.4 Doazkien akta guztiak jaso ez badina, aurkeztu ez duen edo duten taldeek dagokien **dirulaguntza eskubidea galduko dute**.

3.5 Liga gisa garatu daitezzen kiroleetan bi arbitro arituko dira, Ikastetxe bakoitzeko bat, eta puntuen idazketa jardunaldia garatzen deneko Ikaste-



txearen esku geratuko da. Ikastetxeetako baten batek arbitronik ez badu, bestearenak zuzenduko du jarduna. Edozein modutara ere, arbitraia eta puntuen idazketa kirol jardunaldia egiten deneko ikastetxearen ardurapekoak dira.

3.6 Taldekako lehiaketa-kiroletan, jardueraren antolaketa hobea izan dadin, entrenatzaileak (edo hori ezean berak izendatutakoak) laguntza eskaini beharko die lehiaketako epaileei hauek eskatutakoan.

3.7 Jarduera honetako edozein modalitateetan parte hartzerakoan Eskola lizentzia aurkeztu beharko da.

4. PUNTUAZIOA

4.1 Kirol jarduera ezberdinetan ez da inolako sailkapen motarik izango, horren ondorioz taldekako kirol modalitateetan berdinketa izanez gero ez delarik luzapenik edo berdinketa hori kentzeko beste saio gehigarririk egingo.

4.2 Aktetan ezarritako puntuazioa bakarrik izango da kontuan, horretan taldeak (jokalariak, entrenatzaileak eta jendeak) kirol aldi bakoitzean izan duen jarrera orokorrari buruzko aipamena egingo delarik

4.3 Atletismo eta Igeriketa taldeetako kideek lortutako banakako emaitzen zerrendak bidaliko dira.

5. BESTE KIROL MOTA BATZUK

Programatutakoekin bat ez datozen beste kirol jarduera batzuen egutegiak antolatu ahal izango dira. Horretarako, gutxienez, kategoria bereko bost (5) taldek idatziz aurkeztu beharko dute eskabidea, egin nahi dituzten kirol modalitateak adieraziz. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak aurkeztutako proposamena egokia eta egingarria den aztertuko du.



EZAUGARRIAK

Honako kirol hauetara jokatu da: **Atletismoa, Beisbola, 5eko Eskubaloia, Euskal pilota, 5eko Futbola, Herri Kirolak, Igeriketa, Krossa, Arraunketa, Errugbia, Mendia eta Saskibaloia.**

Saskibaloia, 5eko Eskubaloia eta Futbol 5ari doazkien frogak liga eran eta kirolaldi guztian zehar garatuko dira (Saskibaloia 1. zatian, 5eko Eskubaloia 2. zatian, 5eko Futbola 3. zatian).

Gainontzeko kirolei doazkien jardunaldiak, egutegi orokorrari erantsiko zaizkion instalazio eta egunetan denak batera burutuko dira, Bizkaiko Federazio ezberdinek antolatuko dituztelarik.

ESPEZIALITATE BAKOITZAREN ARAUAK

1. ATLETISMO

1.1 Talde bakoitzak 8 atleta izango ditu gutxienez, eta Atletismo Txikiko probetan hartuko dute parte.

1.2 Topaketa bakoitzean lasterketa bi, jauzi bat, jauntiketa bat eta errelebo-lasterketa bat egingo dira.

1.3 Parte-hartzaile bakoitzak kartoi mehe bat eramango du, une oro, eta bertan jasoko dira jardunaldiko emaitza guztiak. Ikastetxeek Bizkaiko Atletismo Federazioan dituzte eskura kartoi meheok.

1.4 Hemen zehazten ez denerako, Bizkaiko Atletismo Federazioaren enregelamenduko arauak hartuko dira.

2. SASKIBALOIA

2.1 Taldeak 8 jokalarik izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalariek zati oso batez jolastu beharko dute.

2.2 Partiduak 10 minutuko 4 zati izango ditu erlojuz neurtuta. Bi zatiren artean 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

2.3 Berdinketaren aukera onargarria da, beraz ezingo da luzapenik jolastu.

2.4 Hemen aipatu ez ditugun arauak Saskibaloiko B. F.ren arauditik hartuko dira.



3. 5EKO ESKUBALOA

3.1 Taldeak 8 jokalarik izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalariek zati oso batez jolastu beharko dute.

3.2 Partiduak 10 minutuko 4 zati izango ditu erlojuz neurtuta. Bi zatiren artean 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

3.3 Berdinketaren aukera onargarria da, beraz ezingo da luzapenik jolastu.

3.4 Hemen aipatu ez ditugun arauak Eskubaloiko B. F.ren arauditik hartuko dira.

4. IGERIKETA

4.1 Talde bakoitzak 6 igerilari aurreztuko ditu gutxienez ihardunaldi bakoitzean.

4.2 Proba hauek egongo dira: 25 metro librez, 25 metro besoez, 3 x 25 metro librez, 3 x 25 metro besoez. Igerilari bakoitzak gehienez ere 2 proba indibidualetan eta erreleboko batetan hartu ahal izango du parte egunero.

4.3 Iharduna hasi aurretik antolatzaileei partaide bakoitzaren "Partaidetza Fitxa" eraman beharko zaie. Fitxok Eskola Kiroleko edozein bulegotan jaso ahal izango dira.

4.4 Hemen aipatu ez ditugun arauak Igeriketako B. F.ren arauditik hartuko dira.

5. 5EKO FUTBOLA

5.1 Talde bakoitzak gutxienez 8 jokalarik eta gehienez 15 izango ditu. Jokalariek zati oso batez gutxienez eta bi gehienez egon behar dute zelaian.

5.2 Porteruek zelaiko jokalarik gisa jokatu behar izango dute zatietariko baten; dena dela gerta daiteke hiru zatietan zehar jokatzeko.

5.3 Partiduak 15 minutuko 3 zati izango ditu erlojuz neurtuta. Bi zatiren artean 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

5.4 Jokalariak aldatzeko modua egongo da beti ere aurreneko araua betetzen bada.

5.5 Hemen aipatu ez ditugun arauak Futboleko B. F.ren arauditik hartuko dira.



6. PILOTA

6.1 Euskal Pilotara jolasten hasteko jardunaldiak izango dira.

6.2 Partehartzaileek Euskal Pilotaren oinarrizko modalitateak, (Esku Pilota, Pala eta Zesta) ezagutuko dituzte Euskal Pilotaren B. F.nen zuzendaritza teknikoaren pean, euren adinerako bereziki egindako materiala izango dutelarik.

7. BEISBOLA

7.1 Beisbolera jolasten hasteko jardunaldiak izango dira. Jardunaldi horiek Beisboleko B. F.nen zuzendaritza teknikoaren pean egingo dira.

7.2 Jardueraren ezaugarriak Federazioko Anduradunak ezanniko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

8. MENDIA

8.1 Taldeak, Bizkaiko Mendiko Federakuntzak antolatzen dituen Mendiko inteenetara joan daien, egindako anautegi jarraituz.

9. ERRUGBIA

9.1 Izena eman duten eskola-umeei errugbiaren modalitatara hurbiltzeko aukera emateko jardunaldiak. Jardueraren ezaugarri zehatzak jardunaldiaren anduradun teknikoak azalduko baditu ere, kirolaniek errugbiaren oinarrizko arauak ikasiko dituzte; partida bat jokatu dute euren artean, eta errugbiaren hirugarren denbora zen den ezagutu ahal izango dute.



MODALITATEAK
18 – 19

BENJAMINA	
TALDEKAKO KIROLAK	5EKO FUTBOLA 5EKO ESKUBALOIA SASKIBALOIA RUGBY
BANAKAKO KIROLAK	ATLETISMOA IGERIKETA BEISBOLA KROSSA
BERTAKO KIROLAK	HERRI KIROLAK EUSKAL PILOTA ARRAUNKETA
BESTE KIROLAK	MENDIA



KIROLEAN HASTEA

UDAL MAILAKO KIROL ANITZA

NORK?

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, haien udal erakunde autonomoek edo kirolaren udal fundazio publikoek UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO JARDUERA antolatuta ahal izango dute, udalerriko benjamin kategoriako eskola-umeentzat, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren baimena lortu ondoren.

ZELAN?

Erakundeak, horretarako, UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO PROIEKTUA aurkeztu behar du, 2018ko irailaren 28a baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Foru Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira.

IZEN-EMATEA

Proiektua onartu ondoren, udalerriko hezkuntza-erakundeek, kirol-elkartek edo udalak berak taldeen izen-ematea egin dezakete, honela: www.bizkaia.eus/eskolakinola webean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Foru Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea, 30, 1. solairua, Bilbo; ordutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan aurkeztu ahal izango dira..

IZENA EMATEKO EPEA

2018ko irailaren 3tik urriaren 15era